

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 185. alea - 2014ko maiatza



**Badator  
Antzerki Astea!!**

Deba eta Itziarren

# KOLOREZ BLAI UDALEKUAK



Gurasoentzako bilera:

Ekainak 20, ostirala, arratsaldeko 5:30ean Itziaroko apaiz etxean eta 7:00etan Debako udaletxeko pleno aretoan.

Informazio gehiagorako: 943 19 13 83 telefono zenbakia edo koloreanitz@gmail.com helbide elektronikoa.

Onartuen zerrenda udaletxe azpiko iragarki-taulan jarriko da ikusgai, maiatzaren 23an.



Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**

Zuhatza Euskara Elkarte

**Erredakzio taldea eta**

**kolaboratzaileak:**

Nagore Dorransoro, Xabier Laka,  
Ina Oiartzabal, Migel M.Lekube  
(Lutxo), Lukax Dorransoro,  
Koldo Aperribai, Izaro  
Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite  
Rodriguez, Gilen Garcia, Eider  
Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane  
Aizpurua, Haika Aizpurua,  
Nekane Goikoetxea, Mattin  
Urbietia, Mikel Aizpurua,  
Debako Gazte Asanblada,  
Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatu eta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA, ENKULTURAZIÓNA, Hizkuntza Politika, Hizkuntza Politikaren, DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA, Ministerio de Política Lingüística y Cultura



Gipuzkoako Foru Aldundia

# aurkibidea

05-06

Gilen Garcia, "Balkoiz balkoi";  
Debako Gazte Asanblada,  
"Gure hitzak".

07

IRITZIA

"Gure esku dago!

Ekainaren 8an guztiok giza  
katean parte hartzera!"



10

ALBISTEA

Ekainean zabalduko ditu atak  
erromesentzako aterpetxe  
berriak



15

KRONIKA

Lan polita egin dute Zubeltzu  
bertso paper sariketako  
parte-hartzaileek



16-17

LABURRAK

Itziar Auzo Udalaren inguruko  
galdeketa,

Hizkuntza zapalkuntzaren  
memoria berreskuratzen...



18

ZERBITZUAK



*Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).*

## Ni neu naiz, ez naiz zu, ez naiz bera

“Ni neu naiz, ez naiz zu, ez naiz bera”. Horrela hasten da Euskal Herriko alderdi, erakunde, ideologia eta pentsamolde diferentetako 24 pertsona ezagunek martxoan KONPONBIDEAren alde egindako adierazpena.

Siglak atzean utzi nahi dituzten euskal hiritarrak direla diote, giza eskubideen alde egiteko elkartu direla. Hori ez dela gutxi batzuen ardura. Giza eskubideak denon ardura direla.

Jakin badakigu, Deban ere, herritar asko dagoela ados adierazpen honetan aipatzen dituzten gutxieneko hauetan behintzat:

- Presoak preso dira epaituak izan direlako, epaitu gabe espetxean aurkitzen direlako edota zigor bat betetzen ari direlako.

- Bestelako bideak bazter utzita, legeriak ematen dituen aukerak modu pertsonalean erabiltzea onartu dute.

- Beraien eskubideak errespetatuak izan behar dute. Beraien ingurune sozial afektibotik gertuen dagoen espetxean zigorra betez, gaixotasun larriak dituztenen kaleratzeari bide emanez eta bizi osorako zigorra ahalbidetzen duten neurriak indargabetuz.

- Eta presoak bezala iheslariak eta deportatuak ere. Haiak herriratu daitezkeen bideak bilatu behar direlakoan gaude.

- Horretarako giza eskubide hauek urratzen dituzten



legeak aldatu behar dira.

Hau horrela izanik, Frantziako eta Espainiako Gobernuak legearen barruan egin daitekeena egin beharra daukatela diogu. Pertsona guztien giza eskubideak errespetatuak izan daitezkeen urratsak eman behar direla. Konponbidea elikatu behar dela eta ez oztopoak ipini. Ezin dugu zain segitu.

Adierazpen honetan borondate berdina dugun hiritar guztiak gonbidatu gintuzten sare indartsu eta geldiezin bat osatzera eta, guk ere, gonbidapen bera luzatzen dizugu irakurle zaren horri.

Ni neu naiz, ez naiz zu, ez naiz bera.

Nik ere jar dezaket nire aletxoak.

**GIZA ESKUBIDEAK. KONPONBIDEA. BAKEA.**

*Presoen aldeko elkartasun taldea*

## Debako Anes Arrinda Haur Krosa, herritik eta herriarentzat

Hainbeste urtetan zehar Debako katekistek antolatu izan duten krosa, aurtengoan guraso talde baten esku gelditu da. Anes Arrindak herri honetan egin izan duen lanari eskerrak emateko, krosak bere izena mantentzea erabaki da. Hala ere, eta herriko haurrak kirola egitera hurbiltzeko helburuarekin, aurten aldatetako batzuk egitea pentsatu zen, gehienbat sari banaketari zegokion atalean. Aurten sariak denon eskura jarri dira, eta ez korrikaldian lehen postuetan gelditu direnen eskura bakarrik.

278 haurrek eman zuten izena eskolaren bitartez, baina aurtengoan, estrainekoz DBHko ikasleek ere parte hartu dute krosean, erreleboak egiten. Guztira 300 haur eta gaztek eman dute izena kroserako. Gainera, 5 urtekoek eskaera berezi bat egin ziguten, denek batera korrika egin nahi zutela esanez.

Krosaren egunean, martxoaren 22an (larunbata), eguraldiaren iragarpenak gure aurka zeuden. Oso eguraldi txarra iragarrita zegoen arratsalde horretarako. Azken orduan antolaketan aldateta batzuk egin behar izan ziren, baina aurrera! Krosa egin beharra zegoela pentsatu genuen.

Haurrak ere, urduri baina pozik, parte hartzeko gogoz hurbildu ziren kioskoko gunera, beti bezala. Batzuk xirak jantzita, beste batzuk aterkiak alboan, baina zapatilak oinetan eta korrikarako prest. Hasieran etsai zirudiena lagun bihurtu zen eta eguraldiak ez zuen buruhauste askorik eman (azken orduan

eguzki izpiek itsutu ere egin gintuzten). 230 haur inguruk euren korrikaldia egin zuten eta ondoren denek izan zuten domina eta mokadutxo bat dastatzeko aukera. Lasterketa guztien ondoren frontoira hurbildu ginen sari zozketa egiteko. Zelako emozio! Denak euren izenak entzuteko zain. Opari bila zetozenei obazioak, bibak eta bestelakoak ere oihukatu zizkieten!

Zenbat gauza, zenbat lan eta zenbat laguntza. Debako herria eta bertako herritarrak gogoz aritu dira hau guztia aurrera eramateko. Alde batetik hainbat eta hainbat guraso, krosaren egunean bertan, laguntzen aritu ziren haurren arduradun lanak egiten, mokaduak banatzen edota ibilbideak antolatzen eta zaintzen. Baina beste hainbeste erakunde, denda eta negoziok ere antolaketaren beste hainbeste alderditan euren bultzadaxoa eman dute. Ezingo genuke honelako krosik egin euren apartaziorik gabe. Ezin ahaztu aurtengo krosa 46.a izatera iristen lagundu duten Debako katekistak. Eurek landatutako hazien uzta guk jaso dugu eta.

MILA ESKER guztioi.

Azkenik esan, Debako Anes Arrinda haur krosak baduela bere webgunea eta bertan kontsultatu ditzakezuela aurtengo krosean izan diren gorabehera guztiak. Baita argazkiak ikusi ere: <http://anesarrindahaurkrossa.weebly.com/>.

*Haur kroseko antolatzaileak*



# GILEN GARCIA

## BALKOIZ BALKOI

Euskal Herritik kanpo ia hamar hilabete egon ostean, nire herri kuttunera, Debara, bisitatxoa egitea erabaki nuen; gehienentzat sorpresa izan zen ez bainuen jende asko abisatu. Hala ere, herrira heltzean neronek izan nuen ustekabea.

**Berriketan** aldizkarirako noizbehinka egiten dudan kolaborazioaren inguruan pentsatzen aritu nintzen bisita egin baino lehenagoko astean, baina herrira ailegatzeko ustekabeak nire gogoeta guztiak alde batera utzi eta horren inguruan idaztera eraman ninduen.

Azken bi urteotan zurrumurru eta eztabaida asko egon da Gipuzkoan zaborraren kudeaketa dela eta. Testuinguru honetan, kudeaketa eredu berriaren aurkako protesta ezberdinak egon dira, horien artean balkoietan plastikozko zakar poltsak zintzilikatzea izan delarik esanguratsuenak. Gure herrian ere badugu horren berri.

Behin protestaz hitz egiten ari garela, eredu eta eduki ezberdinetakoak daudela esan genezake. Ereduei dagokienez, aktibo zein pasiboak aurki ditzakegu, mobilizazio maila handiago edo txikiagoa dutenak, intentsitate handiago edota txikiagoak, denboran luzeago edo motzagoak direnak. Edukiak guztiz baldintzatzen du protesta eta honi dagokionez aldeko zein aurkako aldarrikapena

izan dezake.


Hala eta guztiz ere, aipatutakoa teoria hutsa da eta praktikara jauzia egitea ezinbestekoa da mundu errealean eragin nahi badugu. Zentzu honetan, gogoetarako bide onenetarikoa geure buruari galderak egitea da. Hortaz, ekin diezaiogun gogoe-tari.

Zein da atez atekoaren aurkako protesta eredu-  
dua? Beno, agian atez atekoaren aurkako protesta den ala ez galdegin beharko genuke.

Dena dela, zein da protesta eredu-  
a? Eta edukia? Zein da protesta honen benetako helburua? Atez ateko sistematik eratorritako sistema guztiak salatzea? Hernani edota Usurbilgo sistemak salatzea? Bilduren politika eredu inposatzaileari aurre egitea? Erraustegiaren aldeko aldarrikapena ote da?

Galdera hauei guztiei erantzuna ematea izango litzateke nire lehendabiziko erreakzioa, baina kasu honetan galdera hauek mahaigaineratzen duten gogoeta bultzatzea da nire helburua; hipokresiarri aurre egiteko batez ere.

Gaiari irtenbide bat aurkitze aldera, uste dut agian arazoaren muina garaiera kontua dela soilik. Atez ate zaborra biltzen hasi beharrean, balkoiz balkoi biltzen has gintezke, izan ere, protesta bera aldarrikapena bilakatu da jada.





Debako Gazte Asanblada

## GURE HITZAK...

**Entzun nuen duela gutxi komunikabide batean**, euskararen egoera ez doala ez txarrera ezta onera ere, bere horretan ari dela mantentzen. Pentsarazi egin zidan berri hark, zerbait gaizki ez ote garen ari egiten; haizea alde duen itsasontzi bat aurrera joan ohi bada, zergatik gure ontziak ezin duen kaitik irten. Zaila da arrazoi garbi bat aurkitzea eta ez dut uste idatzi honekin ezer argituko dudarik, baina saiaturik naiz hausnartzen zergatik dagoen gure ontzi eder hau aingura botata.

Atzera begira jarri ezker, nahiz eta euskararen jatorria zein den garbi ez izan, aho batez onartu dute hizkuntzalari gehienek Europako (edo munduko) hizkuntzarik zaharrena dela. Euskararen jatorri eta adinari buruz ari naizela, kontatu zidan behin lagun batek solasaldi bat izan zuela filologo batekin. Honek zioen beretzat euskararekin topo egitea antropologo batentzat mamut batekin topo egitea bezalakoxea zela. Baina zertarako balio du horrelako altxor baten jabe izateak, berau erabili eta gozatzeko gai ez bagara? Misterioz dago inguratuta hizkuntza hau; nondik datorren ez dakigu eta bere etorkizuna zein izango den ere ezin argituz gabiltza.

Iluntasun hori argiztatzeko edo euskara behingoz plazara "jalgitzeko" prozesu horretan, ezinbestekoa da euskaldun orok, euskaldun bihurtzen duen ezaugarri hori erabiltzea, euskara-duna dela erakustea alegia. Norberak bere identitate eta izaera aukeratu eta garatuko ditu, noski, baina jakin euskaldun izatea ez dela soilik ospakizunetan "ikusitakoak" ozen abestera mugatzen. Egunero demonstratu behar den zerbait dela iruditzen zait. Konparaketak

egitea egokiena ez bada ere, espainiarrek beren selezioak mundiala irabazitakoan bezala, denek "Yo soy Español" harrotasunez kantatzearekin alderatuko nuke. Momentu batez, bizitzen ari diren ustelkeria eta egoera txarraz ahaztuko balira bezala.

Hala ere, onartu behar dut badaudela euskaraz bizitzea zailtzen duten egoera batzuk. Izan ere, mundu globalizatu honetan, telebistak zein gainerako komunikabideek, nagusiki erdaraz jaten ematen digute; hizkuntza "handien" artean bizitzera eta hauen gerizpetik ihes egitera behartuta dagoen hizkuntza "txikia" da euskara. Frantsesari iparraldetik eta gaztelarari hegoaldeetik aurre egin eta tinko mantentzeko gai den hizkuntza handia da bere txikitasunean.

Debako egoerari buruz, interesgarria iruditu zitzaidan Gazte Asanbladako kide baten gogoeta. Kide honek herriko sarreran jarritako "Deban euskaraz bizi gara" seinaleari erreferentzia egiten zion; esanez, egokia goa litzatekeela "Deban euskaraz badakigu" jarriko balu. Ez dut esango Deban

euskaraz hitz egiten ez denik, ez baitzait sudurra gehiago haztea komeni; baina euskaraz dakiten herriarren eta egunerokotasunean euskaraz hitz egitea aukeratzen dutenen artean alde nabarmena dagoela iruditzen zait. Kuriositatez, seinale hura auto batek airean eraman zuen duela gutxi eta neure buruari galdetzen diot: kondenatuta al gaude euskaraz ez egitea? Ez dut uste.

Sinesten eta desiratzen dut euskarak aingura astun hori altxa eta indartzeari ekingo diola. Laboaren kanta hark zihoen bezala:

**...EZ DAITEZELA GAL**

*Eñaut Mugarza*



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

## Gure esku dago! Ekainaren 8an guztiok giza katean parte hartzera!



*Berriketan*-en lehen aldiz idatzi genuenean, Gure Esku Dago dinamikaren izaeraz, herrian sortu berri zen taldeaz... idatzi genuen. Joan dira egunak eta asteak, baita 10 bilera ere eta elkarlanean, guztiok batzen gaituzten oinarrizko ideia horien alde, gogoz egiten ari gara lan. Mahaia jartzeaz gain, ekimen desberdinak pentsatu ditugu, batzuk egin ahalko direnak, beste batzuk zailagoak, beste batzuk paper hutsean geratuko direnak, denetik: Bilboko ekitaldira irteera, hitzaldiak erabakitze eskubideaz eta Kataluniako prozesuaz, ikurriña erraldoia...

Ekainaren 8an erabakitze eskubidearen aldeko aldarria egingo dugu, Bergaran. Bertara Debabarreneko gainontzeko herritarrekin joango gara. Giza katera joango garenok autobusez joateko aukera izango dugu. Bergaran jaia antolatu dute giza katearen ondoren. Jakinik jende asko joango garelara eta itzultze-

ko ere ahalik eta aukera gehien emateko, bilera batera deituko dugu lehenago ordutegiak lotzeko –egunaren berri kartel bidez jakingo duzue–.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, dinamika herritar honen alde argazkiak atera, ekintzetan parte hartu, gazta apustuak egin, metroak erosi, ekimenetan ilusioz eta alai parte hartu eta ekonomikoki lagundu gaituzuen norbanako zein taberna eta dendei.

Oraindik garaiz zaude giza katean parte hartzeko! Astearte eta larunbatetan izan ezik, arratsaldeko 18:30etik 20:30era egunero plazan aurkituko gaituzue, igandetan eguerdian: izena emateko (zuen metroa erosteko), edozein zalantza galdetzeko, argazkiak ateratzeko, kamisetak erosteko, ekintza desberdinak proposatzeko aukera izango duzue!

Har dezagun bidea, gure esku dago!

*Debako gure esku dago!*

**Seven Clovers**  
Irish pub

**Gozatu gure garagardoa**

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295

**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

**Jari zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!**

**Zuhatzza**

943 191 383  
berriketan@zuhatzza.com

# Badator XXVIII. Antzerki Astea!!



## **Maiatzak 23, ostirala:**

Kale antzerkia,  
19:00etan.

### **"AMETSETAN BIZI"**

Trapu Zaharra. Donostia.

Luzaroan langabezian dauden antzinako bi komikok etorkizunari aurre egin behar diote. Batek dio dena pikutara bidali behar dela; besteak, berriz, abiapuntu berri batetik has-teko aukera izan daitekeela.

## **Maiatzak 24, larunbata:**

Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (5 euro).

**"EROTIK"** Taupada  
Taldea. Elgoibar.

Gertaerak psikiatriko batean gertatzen dira. Misterio, intriga eta abentura zoroak biziko dituzte protagonistek, nahiz eta beraien nahia maitasuna lortzea besterik izan ez. Ezertxo ere ez da dirudiena!

## **Maiatzak 28, asteazkena**

GOAZ Aretoan, 10:30ean  
eta 11:30ean.

**"ITSUAK"** Aizamako  
Eskola Antzerkia.  
Aizarna.

Ikusmen arazoak dituzte herritarrek. Zientzialari jakintsu bat etortzen da berri-berria den medikamentua probatzeko asmoarekin. Ea itsuek ikusmena berreskuratzen duten...

Aldats pilotalekuan,  
17:00etan (3 euro).

**"ARTISTA BAT NAIZ NI"**  
Korri, Xalto eta Brinko.  
Lezo.

Artista ederrak direla erakutsi nahi digute oraingoan gure paila-zoek. Hainbat esketx dibertigarritz jositako obra dakarte: musika kontzertu bitxi bat, pintura eta eskultura saioa, zinea... Publikoaren laguntzaz, arratsalde pasa alaia proposatzen digute.



# Maiatzaren 23tik ekainaren 1era ospatuko da, GOAZ Antzerki Taldearen eskutik

Maiatzeko azken txanpan dator-kigu aurten ere Antzerki Astea, hutsik egin gabe. Hogeita zortzi-garren edizioa du aurtengoa eta guztira zazpi ikuskizunez gozatzeko aukera eskainiko du GOAZ Antzerki Taldeak antolatutako egitarauak.

Antzerki Astea hilaren 23ko iluntzean abiatuko da, Trapu Zaharra konpainiaren



“Ametsetan Bizi” kale antzerkia-ekin. Eta hurrengo egunetan ere egongo da zer ikusi, entzun eta gozatu. Emanaldi guzti-guztiak euskaraz egingo dira eta Aldats pilotalekuan eskainiko dira gehienak. Hemen behean bildu dugu aurtengo egitaraua.

Gonbitea, beraz, egina dago. “Dastatu ezazue eta on egin deizuela!”.



**Maiatzak 30, ostirala:**  
Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (6 euro).

**“KOKA KOLA ETA BAREA”** Ramon Agirre eta Inazio Tolosa. Donostia.

“Xentimorik gabe” antzezlanarekin munduan zehar denbora luzez ibili ondoren, Euskal Herrira itzultzen dira eta Ez Dok Amairuren garaiak gogoratuko dizkigute.



**Maiatzak 31, larunbata:**  
Aldats pilotalekuan,  
22:30ean (6 euro).

**“ONDOKO HILOBIKO TIPOA”**  
Txalo Antzerki Taldea. Donostia.

Zeinek esan... neska pinpirina baserrian! Eta baseritar bat operan? Mi mundu ezberdin, leku berean. Ezinezkoa litzatekeena posible egingo duen istorio zoragarria.



**Ekainak 1, igandea:**  
Aldats pilotalekuan,  
19:00etan (5 euro).

**“AMETS ZIRKOA”**  
Aldatzen Laguntzen Taldea. Donostia.

Amets Zirkoko pailazoen erabaki gogor bat hartu behar dute: zirkoa itxi. Euskal Herri osotik zirkoa-ekin herriz herri ibili ondoren, gaur azken emanaldia egingo dute.

## XXVIII. Antzerki Astea

Udaberriz udaberri  
Kukua bezela.  
GOAZek prestatu du  
Aurtengo pastela  
Ematen du itxura  
Polita duela  
Dastatu ezazue  
On egin deizuela.

GOAZ antzerki munduan  
Gira eta bira  
Laster berrogei urte  
Beteko baitira  
Jarraitzen badezute  
Zuek hor begira  
Ailegatuko gara  
Beste berrogeira

Gure udalak ematen  
Baitigu arnasa  
XXVIII aste  
ez da hain erraza!  
Baina badu merenge  
Baita ere saltsa  
Ea betetzen diran  
frontoi eta plaza.

## GELTOKIA, Done Jakue Bideko erromesentzako aterpetxe berria

Ekainean zabalduko ditu ateak Done Jakue Bideko erromesentzako Debako aterpetxe berriak. Debako Santiago Bideko Lagunen Elkarteak Eusko Trenbide Sareari eginiko eskaeraren ondorioa da. Lau gelatan banaturik berrogeita hamasei lagunentzako tokia du, urte guztia egongo da zabalik eta orain arte bezala elkarteko kideek kudeatuko dute.

Mendeetan zehar ibilbide ezezaguna izan bada ere, urtetik urtera haziz joan den ohitura da Done Jakue Bidea kostako bidetik egitea. Debako Santiago Bideko Lagunei esker, 2004. urteaz geroztik herrian erromesentzako aterpetxea izateak indartsu kokatu gaitu bidean eta dudarik gabe erabakigarria izan da azken urteetako erromes kopuruaren gorakadan. Egun, kostako bidea egiten duten erromes gehienek geldialdia egin ohi dute gurean. Zenbaitentzat bidaia espirituala da; beste batzuentzat, aldiz, kirol bidaia. Arrazoiak arrazoi, urtetik urtera gehiago dira motxila eta mendiko botak hartu eta bideari ekiten diotenak.

Debako Udalak eta Debako Santiago Bideko elkarteak, 2010ean Eusko Tren Sarearekin harremanetan jarri eta, geltokiko eraikinaren lehen eta bigarren solairuak aterpetxe bat egiteko uztea lortu zuten. Egitasmoaren aurrekontua 309.000 eurokoa izanik, finantzaketa lortzeko gogor lan egin dute eta 2012an Eusko Jaurlaritzako Kultura

Sailak 198.049,66 euroko diru-laguntza onartu zuen proiektua gauzatzeko; iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak 55.000 euro; eta ETSk 32.000 euro jarriko ditu. Udalak jarriko duen kopuruarekin lanen kostuaren osoa izango dugu eta Santiago Bideen elkarte arduratuko da altzari eta martxan jartzeko beharrezkoak diren gainontzekoez.

Deba eta Euskal Herria mundu osora zabaltzeko marketin tresna paregabea da Done Jakue Bidea; baina, gure garapen ekonomikoarentzat ere abagune argia da. Debako aterpetxetik 2013an 7.758 erromes pasa ziren; aterpetxeetan lo egiten duen erromes batek eguneko gutxienez 30 euro gastatzen dituela jakinda, eta Irun eta Muskiz arteko tartea ibiltzeko gutxienez 7 egun behar dituela kontuan hartuta, diru-sarrerak erraz kalkulatu ditzakegu.

Azpiegitura berri honek orain arte elkarteak egindako lana baldintza hobetan egiten jarraitzea eta aterpetxetik pasako diren erromesei zerbitzu



hobe eskaintzea ahalbidetuko du. Era berean, instalakuntza berriak sortzeko eta herriko ostalaritza eta merkataritzari bultzada emateko ere eragile garrantzitsua izango da inongo zalantzarik gabe.

*Debako Turismo Bulegoa*

### Belaunaldien arteko loturak sendotzen

Populazioaren zahartzaroaren fenomenoak apurka-apurka aurre egin beharreko hainbat erronka ekarri ditu. Zahartzaroaren inguruan gazteek sarri aurreiritziak dituzte eta askotan informazio falta. Hau dela eta, gazte eta nagusiak elkarrekin harremanetan jarri eta haien arteko lotura sendotzea garrantzitsua da.

Debako Eguneko Zentroak, Gaztelekuarekin batera, gazte eta nagusien artean burutzeko ekintza ezberdinak planteatu ditu. Ekintza hauen xedea belaunaldi arteko topaketa eratzea da. Hona hemen apirillean burututako ekintzaren argazkia:



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**  
 Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

Zesterokua Plaza  
 Tel.: 943 029 376  
 Bazkariak: 13:00 / 16:00  
 Afariak: 20:00 / 23:00

**Bordatxo JATETXEA**

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



## Berriketan gaztea

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.  
2014ko maiatza

### Mendatatik irten ondoren nora joaten dira ikasleak?

4. mailara iristerakoan, ikasleek etorkizunean zer egingo duten erabaki behar dute. Ez da erabaki erraza izaten, ordea, eta horretan laguntzeko ikastetxean orientazio zerbitzua eskaintzen da. Gurasoen iritzia ere garrantzitsua izaten da. Familian arazoak ere egon daitezke, besteak beste, gurasoen eta ikasleen interesak berdinak ez badira. Hori gerta ez dadin, etxean beharrezkoak dira elkarrizketa eta komunikazioa.

Normalean bi aukera izaten dituzte gazteek: Elgoibarrera joan, batxilerra edo modulu bat egitera, edo Zarautzera joan batxilerra egitera. Eta ikasteko gogo gutxi daukatenak lan mundura joaten dira zuzenean. Batxilergoan hartzeko ikasgai asko izaten dira, eta ikasleak osasun-zientzietan, zientzia eta teknologian, gizarte-zientzietan edo humanitateetan espezializatu daitezke, aukeratzen dutenaren arabera.

Batxilerraren ondoren gazte asko unibertsitatera joaten dira Donostiara, Gasteizera, Bilbora... Eta gutxi batzuk Euskal Herriatik kanpo edo estatutik kanpo ere joaten dira ikasketak egitera.

**Berriketan Gaztearen** maiatzeko ale honetan, gai honen inguruan aritu nahi izan dugu. Elkarrizketatxo bat egitera jo dugu institutuko orientatzailearengana eta 4. mailan erabaki zail hau hartu beharrean dauden ikasleengana ere jo dugu. Hurrengo orrian bildu ditugu galdera-erantzunak.





# ELKA RRIZ KETAK



**Joseba  
Urkiri eta  
Mikel  
Elorza**

**Joseba Urkiri eta Mikel Elorzak ikasturte bukaeran utziko dute Mendata institutua eta kanpora joko dute ikastera. Erraza izan ote da horren inguruko erabakiak hartzea? Nora joan, zer ikasi... Hona hemen zer kontatu diguten:**

**Erraza egin al zaizu datorren urtean zer ikasiko duzun erabakitzea? Zalantza asko izan al dituzu?**

**Joseba Urkiri:** Nahiko erraza egin zait aukeratzea, eta zalantza gutxi izan ditut.  
**Mikel Elorza:** Bai, nahiko erraz aukeratu dut datorren urtean zer ikasiko dudun, eta ez dut zalantza handirik izan.

**Zer hartu duzu kontuan? Lan munduan etorkizuna izatea edo gustuko duzuna ikastea?**

**J.U.:** Biak hartu ditut kontuan, biak baitira garrantzitsuak.  
**M.E.:** Gehienbat, nire gustukoa izatea hartu dut kontuan, horrela errazago ikasiko dudalako, eta hori da garrantzitsua.

**Nola lortu duzu aukera ezberdinen inguruko informazioa?**

**J.U.:** Orientatzailearen bidez.  
**M.E.:** Gurasoen bidez, orientatzailearen bidez eta interneten bidez informatu naiz dauden aukerez.

**Gurasoen nahia kontuan izanda hartu al duzu erabakia?**

**J.U.:** Nik hartu dut erabakia, gurasoen laguntzarik gabe.  
**M.E.:** Bai, gurasoekin hartu dut erabakia.

**Herritik kanpora joan beharra duzula jakinda, lasai zaude ala urduri?**

**J.U.:** Nahiko lasai nago.  
**M.E.:** Nahiko urduri nago, ez bainaiz egongo nire betiko lagunekin, lagun berriak egin beharko ditut.

**Zer ikasiko duzu? Nora joango zara?**

**J.U.:** Zientzia teknologikoa ikasiko dut Elgoibarren.  
**M.E.:** Batxiler zientifikoa ikasiko dut, eta seguraski Donostian ikasiko dut.



**Idoia  
Arrizabalaga**

**Idoia Arrizabalaga nutrikuarra da gure institutuko orientatzailea. Ikasleei ikasketei buruzko erabakiak hartzen laguntzea da bere zereginetako bat.**

**Normalean zer bide hartzen dute Mendatako ikasleek?**

Gehienek DBH ondoren batxilergoa egin nahi izaten dute eta gutxi batzuek lanbide heziketa. Batxilergoa egin nahi izaten dutenen artean, neska gehienek Osasun Zientzietako eta Gizarte Zientzietako batxilergoak aukeratzen dituzte, eta mutil gehienek Zientzia eta Teknologia bidea. Lanbide Heziketako zikloa egin nahi dutenen artean, berriz, mutilek makina-erreminta, automozioa edo informatikarekin lotutako ikasketak egiten dituzte, eta neska gehienek administratza, irudi pertsonala edo osasunari lotutakoak. Denetik aurki daiteke, ordea.

**Ikasle asko joaten al zaizkizu laguntza eske?**

Ikasturtearen arabera. Aurten, adibidez, 53 ikasle dira eta erdia baino gehiago etorri zaizkit. Agian besteak ez dira etorriko.

**Urduri ikusten al dituzu ikasleak zer ikasi nahi duten erabaki behar dutenean?**

Ikasle gutxi batzuek badakite txikitatik zer ikasi nahi duten, eta beste batzuek poliki erabakitzen dute beren ibilbidea. Beste batzuk oso urduri jartzen dira sarrera gutxi dituztela ikusten dutenean, beraiek nahi dutena uruti ikusten dutelako, erabakitzeke unea goizegi etorri zaiela pentsatzen dutelako. Batzuentzat momentu zaila da.

**Ikasleek beraien kabuz hartzen dituzte erabakiak, ala gurasoek eragin handia izaten dute?**

Hemen ere denetik dago. Batzuk autonomoak dira beraien erabakietan, baina ez bakarrik zer egingo duten erabakitzeke orduan, beren bizitzako edozein erabaki hartzerakoan baizik. Eta horiek, kasu haueetan ere, berdin jokatzen dute. Beste batzuk ez dira hain autonomoak eta gurasoen iritzia pisu handiagoa izaten du. Gutxi batzuen kasuan gurasoek esaten dute zer ikasi behar duten.

**Zer aholkatzen diezu ikasleei normalean?**

Beraiei zer gustatzen zaien, zer errendimendu duten edota inguruan dauden aukerak zeintzuk diren ikusi behar da. Hori dena hartu behar da kontuan ikasleek zer ikasi nahi duten erabakitzeke.

# MUGIKORRAREN ERABILERA

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean telefono mugikorrei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Zenbat urtekin izan zenuen lehenengo mugikorra? Nola sentitu zinen?
- 2.- Dituzun aplikazioetatik (WhatsApp, Tuenti, Instagram, Facebook...) zein ez zenuke inoiz ezabatuko?
- 3.- Telefonoak dituen funtzioetatik (musika entzun, deiak egin, argazkiak atera...), zein da gehien erabiltzen duzuna?
- 4.- Mugikorrera oso "engantxatuta" al zaude?
- 5.- Egon al zara inoiz mugikorrik gabe (apurtu egin zaizulako, konpon-tzen izan duzulako...)?
- 6.- Nork ordaintzen du zure mugikorraren kontratua eta saldoa?



## Gorka Masach:

- 1.- Ez dut. Hobeto mugikorrik gabe.
- 2.- Baloia.
- 3.- Musika entzun eta argazkiak atera.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai, bizitza osoa.
- 6.- Komentariorik gabe.



## Nora Salegi:

- 1.- Bederatzi urterekin. Pozik.
- 2.- WhatsApp-a.
- 3.- Argazkiak atera, Selfie.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai.
- 6.- Nire gurasoek.



## Telmo Soto:

- 1.- Hamaika urterekin. Pozik.
- 2.- WhatsApp-a.
- 3.- Musika entzun.
- 4.- Bai.
- 5.- Bai.
- 6.- Nire amak.



## Josu Arufe:

- 1.- Bederatzi urterekin.
- 2.- WhatsApp-a.
- 3.- Musika entzun eta jendearekin hitz egin.
- 4.- Bai, asko.
- 5.- Bai, lapurtu egin zidaten.
- 6.- Gurasoek.




## Iñigo Egaña:

- 1.- Hamar urterekin. Oso pozik.
- 2.- WhatsApp-a eta Memedroid.
- 3.- Musika entzun.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai, apurtu egin zitzaidan.
- 6.- Nire gurasoek.




## Kimetz Alberdi:

- 1.- Ez dakit. Ondo.
- 2.- WhatsApp-a.
- 3.- Musika entzun, XD.
- 4.- Ez.
- 5.- Bai.
- 6.- Nire amak.




# DenBord-pasaak

## LABIRINTOA



## ZENBAT HIRUKI IKUSTEN DITUZU ?



## GURUTZEGRAMA

**4 Gurutzegrama**

- 1- Edari bat da. Garia, txuria edo beltza.
- 2- Gardena da, eta itsasoetan edo lobaetan aurkitzen da.
- 3- Mutil baten izena da.
- 4- Oso langilea eta lur azpian bizi den intsektua.
- 5- Hor estalagmitak aurkituko dituzu.
- 6- Gure gorputzean daude eta oso gogorak dira.
- 7- Zuhaitzetan egiten dute txorlek.

## HIZKI-ZOPA

Hizki-zopa honetan nire lagunren izenak daude

A	I	T	O	R	M	W	S	E	R	Y	U
M	X	A	E	D	A	D	O	L	P	Ñ	K
A	R	R	V	Q	W	E	R	T	Y	U	I
I	O	A	A	P	A	A	S	D	F	G	H
A	J	N	K	L	L	Ñ	Z	X	C	V	B
L	W	T	E	R	E	T	Y	U	I	O	P
E	A	Z	S	D	N	F	G	H	J	K	L
N	Ñ	A	Z	E	N	E	K	O	X	C	V
B	N	M	A	Q	W	E	R	T	Y	U	I
O	P	O	A	S	D	F	G	H	J	K	L
Ñ	R	Z	X	C	V	B	N	M	Q	W	E
A	R	T	Y	U	I	O	P	A	S	D	F

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALERRA 2013-2014

Aitor Gonzalez  
Alex Martija  
Unai Matias  
Ekaitz Zubimendi  
Kimetz Juaristi

Maitte Aldabaldetrekua  
Alex Alonso  
Julen Aristi  
Josu Arufe  
Iñigo Egaña

Koordinatzailea: Aritz Meababasterretxea

## Lan polita egin dute Zubeltzu bertso paper sariketako parte-hartzaileek



Lan polita egin dute Zubeltzu bertso paper sariketako parte hartu duten guztiek. Udaleko Euskara Batzordeak eta Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketak erantzun ona eduki du bosgarren edizio honetan.

Apirilaren 11n Agirre Jauregian egin zen sari banaketa, areto bete-betearen aurrean. Urko Egaña, Iñigo Izagirre eta Mikel Aizpurua aritu dira epaile lanetan eta guztien izenean, Mikel Aizpuruak bertso-sorta irabazle bakoitzaren nondik norakoak azaldu zituen ekitaldian. Egileek kantuan eman zituzten gero.

**Berriketan** aldizkariaren apirileko alean aipatu genuen bezala, Aloña Salegi izan da garaile lehiaketako txikiaren kategorian, Ane Txurruka eta Goretti Unanue atzetik zituela. Gazteen mailan, aldiz, Aitor Arakistain izan da nagusi; bigarren eta hirugarren Ekaitz Zubimendi eta Julen Arufe geratu dira, hurrenez hurren. Eta, azken kategorian, nagusien taldean, Ander Zulaika nabarmendu da baina orpo izan ditu Karlos Larrañaga eta Luis M.

Agirrezabala.

Sariak banatu ostean, Itziarke zein Debako bertso eskolako kideak triki-bertso-txikiteoarekin hasi ziren, zaletuak lagun zituztela, eta, tabernetan egin zieten harrera ezin hobearen ondorioz, bero-bero iritsi ziren guztiak afarira. Bertan zituzten zain Unai Agirre eta Agin Laburu: bikotearen saioa bikaina izan zen, umoretik eta graziatik asko emanaz (igarri zen elkar ondo baino hobeto ezagutzen zutela). Giro aparta, beraz, afari ondoren ere kalean islatu zena!

Udalek eskerrak eman nahi dizkie tabernariei bertso-txikiteoan erakutsitako eskuzabaltasunagatik eta bereziki Bordatxo jatetxeari, afaria, denontzako eskuragarri izan zedin egindako ahalegi-nagatik.

Sariketara aurkeztutako lan guztiak liburuxka batean bildu eta argitaratuko dira aurten ere. Bien bitartean, Ander Zulaika irabazleak idatzitako lana ekarri nahi izan dugu aldizkarira. Eskuineko zutabean duzue irakurgai.

**Sariketara  
aurkeztutako lan  
guztiak  
liburuxka batean  
argitaratuko dira  
aurten ere**

### “Estraperluan”

I) Gure etxean normala genuen zortzi umeren negarra.  
Ez zen erraza engainatzea anai gazte haien arra.  
Ikasketetan nahiz eta nintzen argia bezain azkarra,  
Leziotxo bat emanez dator nerena aitona zaharra:  
“bi irakasle onak dituzu gosea eta beharra”.

II) Eguzkia behin barrura sartu ilunan disimuluan  
Mokau txiki bat eramaten nun txorixo puntta taluan.  
Gure eguna ordun hasten zen beste askoren moduan.  
Urte askotan ikusi nitun hamaika gizon alu han!  
Oso gazterik hasi nintzen ni Gauero estraperluan.

III) Itsasontzia ilargiakin zetorren kosta ondora.  
Guk lehorretik elkar josita tablak bota itsasora.  
Zaku astunak bizkarka hustu itsasontzitik basora.  
Izerditan blai joaten ginen mendi malkar baten gora  
Gure aurkari izaten ziren iluna eta denbora.

IV) Artilezko bi galtzerdi lodi eta abarketa finez.  
Belaun buruak urraturik ta galtza barrena buztinez.  
Karga asunak soinean hartuz han joaten ginen oinez.  
Gorputz guztiko molestiekin hanka azpitako minez.  
Nahiz hasitako lan hori nola bukatuko zen jakin ez.

V) Gure etxera dirua ez zen etorriko bere kasa.  
Arriskuakin gauero jolas nahiz eta ez zen jolasa.  
Kinka larrian egin nituen asteaz zazpi gaupasa.  
Sarritan behar baino gehiago estutzen nuen arnasa.  
Ondorengoak nik pasatako trantzerik ez zezan pasa.

(\*Doinua: Mutil koxkor bat)

**Egilea: Ander Zulaika**

## Itziar Auzo Udalaren inguruko herri galdeketa egingo dute maiatzaren 25ean



Hilaren 25ean, Europako Parlamenturako hauteskunderen egun berean, Itziar auzo udalaren inguruko herri galdeketa egingo da. Lau tokitan jarriko dituzte hautetsontziak: Itxaspe eta Itziarko kaskoa; Elorrixa eta Mardari; Lastur goia, Lastur behea, Endoia eta Arbizkoa; eta Egia eta Arriola. Hau da galdera: "Ados zaude auzo udala ondorengo lurraldeekin, Itziar kaskoa, Itxaspe, Egia, Mardari, Endoia, Arriola, Lastur eta Elorrixa, sortzeko?". Bai edo ez erantzun beharko dute herritarrek.

Herri galdeketa Denon Herria plataformaren ekimez burutuko da. Alegia, pasa den apirilaren 30ean, Denon Herriak mozio bat aurkeztu zuen udalbatzan. Bertan, aipatutako galdeketa egin nahi zuela iragarri, eta kontsulta hori aurrera eramateko eta kontsultaren gardentasuna bermatzeko behar diren giza baliabideak eta azpiegitura jartzea eskatu zion Debako Udalari. Mozioak aurrera egin zuen Alternatiba, Aralar eta Itziar Herria Sortzen alderdien babesarekin. EAJK eta Ezker Anitzak mozioaren aurka bozkatu zuten, eta EA abstenitu egin zen.

### Proiektua, "blokeo egoeran"

Debako Udalean ordezkariak duten talde politikoen artean, ez dago adostasunik auzo udalaren inguruan. 2013ko urriaren 9an

udal plenoak aho batez onartutako Itziarko auzo udalaren egitasmo-proposamena bertan behera gertatzeko arriskua dago. Desadostasun puntu nagusietako bat auzo udalak jaso beharko lukeen eremuaren inguruan dago.

Auzo Udalaren hasierako proposamenaren arabera, Debakoak diren landa eremuko auzo guztiek osatuko lukete auzo udala. Baina, hilabeteak aurrera joan ahala, zenbait alderdik bestelako proposamena mahaigaineratu dute, lurralde eremua Itziarko herrigunera eta Itxaspe auzora mugatu nahi dutelarik.

Alternatiba Eraikitzen, Aralar eta Itziar Herria Sortzeneko zinegotziek agerraldi bateratua egin zuten apirilaren 29an, udaletxean. Eta haiek azaldu zuten bezalaxe uneotan proiektua "blokeo egoera" batean dago, "EAJ, EA eta Ezker Anitza alderdietako ordezkariak adierazi baitute, Auzo Udalaren egitasmoa berresteko egin beharra dagoen gai honen inguruko bigarren Udal Plenoan -ekainean burutuko den horretan-, aho batez onartutako Oinarrizko Txostenaren aurka egingo dutela".

## Nuria Rodriguez eta Mikel Elgezabal garaile Deba-Xtreme Triatloian

Maiatzaren 10ean triatloia seigarren edizioa ospatu zen Deban. Triatloia distantzia esprintean (0,750 km-30 km-5,2 km) ospatu zen eta 2014ko bigarren proba puntuagarria izan da Euskal Herriko triatloi zirkuituari dagokionez. Proba, Deba-Itziar Extreme Kirol Taldeak, Gipuzkoako Triatloi Federazioak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatu dute.

Guztira 402 lagunek parte hartu zuten triatloian. Nuria Rodriguez (Saltoki-Trikideak) nafarra nagusitu zen emakumezkoetan, 1:30:41ko denborarekin, eta Mikel Elgezabal (Urdaitri T.T.) gernikarra izan zen azkarrena gizonetzkoetan, 1:18:51ko denborarekin.



*Kirolargazki.com / Aitor Antón Sáenz*

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## Hizkuntza zapalkuntzaren memoria berreskuratzen

Dabid Anaut, Euskal Memoria Fundazioak atera duen azken liburuaren –“Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria”– idazlea, Agirre jauregian izan zen maiatzaren 8an.

“Euskara, ospela eta egutera” izenburuko dokumentalaren emanaldia egin zen lehenbizi. Eta segidan Anautek bere lanaren nondik norakoak izan zituen hizpide, areto bete-betean.

Liburuak euskarak jasan duen zapalkuntzaren memoria du ardatz, eta euskararen kontrako errepresioaren kronika biltzen du, hainbat datu eta ehunka herritarren testigantza emanez. Horrez gain, euskararen kateari eusteko Euskal Herrian sorturiko mugimenduaren argazki zabalak eskaintzen du.

“Egia da belaunaldi askok eta jende askok ez duela izan hizkuntzaren zapalkuntzaren ezagutzarik eta jabetzarik batere”, adierazi zuen Anautek. “Kronika ofizialetan batere jaso ez den errealitate bat da hizkuntza zapalkuntza”.



Euskal Memoria

Erronka horri heldu dio, bada, Euskal Memoria Fundazioak bere azken lan monografikoan. “Zapalkuntzaren zein berreskurapenaren ardatzetan oinarritu da gure memoria berreraikitzeo ariketa hau, bien baitan dagoelako egungo hizkuntza-egoera ulertzeko oinarria”.

Dabid Anaut Peña (Burlata, 1968) Euskal Filologian lizentziatua da. Azken 15 urteotan Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko udaletako euskara zerbitzuko teknikari lanean dabil. Besteak beste, Soziolinguistika Klusterraren Hausnartu Saria birritan irabazi du.



## “Hitzen Dantza”, Liburuaren Egunaren bueltan

“Hitzen dantza” izenburupean antolatuta da aurten Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira prestatutako egitaraua. Udalak, Ostolaza Udal Liburutegiak eta Kultur Elkarteak elkarlanean antolatutako hiru hitzordu izan dira aukeran eta harrera polita egin diete herritarrek.

Lehenik, apirilaren 28an Jose Luis Albizuk bere esperientziatik abiatuta idatzi duen “*Bajo la montaña: los servicios médicos en tiempos de guerra en las Comunidades de Población en Resistencia de Ixcán, Guatemala*” liburuak aurkeztu zuen Agirre jauregiko Ispiluen Gelan.

“Poesia Dantzan” ekimenak arrakasta handia izan zuen hilaren 29an Kultur Elkarteak. Edonork, edozein hizkuntzatan poesia edo testu laburra irakurtzeko aukera izan zuen. Eta, bestetik, Kulunka dantza taldeak dantzaren bitartez hiru poesia aurkeztu eta irudikatu zituen.

Egitaraua apirilaren 30ean amaitu zen. “Deba ehun hitzetan” lehiaketako lan batzuekin irakurketa musikatua egin zuten. Deba Musikaleko ikasle eta irakasleek ere parte hartu zuten.



Ander Salegi

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletelne.es

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1. behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29

**ITXAS GAIN**

Taberna

ITXAS GAIN


Hondartza ondoan  
Urte gustian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.. 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 229 488 - 018 644 014  
20820 DEBA (GIPUZKOA)



## Agenda

## Maiatzak 24-25

-8:30. **Mendi irteera** (bi egunekoa). Burdin Kurutz M. T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

## Maiatzak 25, igandea

-Europako Parlamenturako hauteskundeak.

## Maiatzak 26, astelehena

-12:30. **Geoparke gunea** inauguratuko da Turismo Bulegoan.

## Maiatzak 31, ostirala

-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## Ekainak 7, larunbata

-**GeoAzoka**, Europar Geoparkearen Astearen baitan.

## Ekainak 8, igandea

-**Andutz Eguna**, Burdin Kurutz Mendi Taldeak antolatuta.

## Ekainak 14, larunbata

-12:00. **Kalean Kantuz**. Agirre jauregitik abiatuko da kalejira.

## Ekainak 19, osteguna

-21:30. "**Gorde sekretuak**", helduentzako kontaketa Agirre jauregian.

## Ekainak 20, ostirala

-17:00. Ur jolasak herriko neska-mutilentzat, hondartzan.

## Musika eta Dantza Eskolako matrikulazioa

Debako Musika eta Dantza Eskolak 2014/2015 ikasturterako ikasle berrientzako matrikulazio epea maiatzaren 12an zabaldu zuen eta ekainaren 13a bitarte izango du zabalik.

Izena emateko inprimakiak Agirre jauregiko idazkaritzako bulegoan eskuratu daitezke: astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako: 943 19 20 16.

## Europar Geoparkearen Astea

-Maiatzaren 29tik ekainaren 8a bitarte, **Europar Geoparkearen Astea** ospatuko da. Deban, Mutrikun eta Zumaian ekimen ezberdinak burutuko dira eta maiatzaren 26an aurkeztuko

da egitaraua, Debako Turismo Bulegoan. Burutuko diren jardueren artean ikus-entzunezko emanaldiak, hitzaldiak eta GeoAzoka daude, besteak beste.

## Ibilketa Nordikoko irteera gidatuak

-Ekainaren 1ean (igandea) **Ibilketa Nordikoko irteera gidatua** burutuko da. 10:00etan hasiko da saioa (Turismo Bulegoan) eta Lapari hondartza eta Artzabalgo hezegunearen inguruan ibiliko dira parte-hartzaileak.

Euskara hutsezko ibilbide erraza izango da. Hori dela eta, Zuhatza Euskara Elkarteak gonbidapena luzatu nahi die **Mintzalagunen** taldeetan euskara ikasten eta praktikatzan ari diren edota aritu izan diren kide guztiei.

## Ikasturte amaierako jaialdiak

-22:00. **Branka Aerobik Taldearen** ikasturte amaierako jaialdia, ekainaren 13an (ostirala), Aldats pilotalekuan.

ko jaialdia, ekainaren 14an (larunbata), Aldats pilotalekuan.

-22:00. **Kulunka Dantza Taldearen** ikasturte amaiera-

-12:30. **Musika Eskolako dantza taldearen** jaialdia, ekainaren 15ean (igandea).

## Gipuzkoako XLV. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa

-Hiru jaurtialdi gelditzen dira aurtengo txapelketari amaiera emateko. Maiatzaren 24an Floreagan (Azkoitia), maiatza-

ren 31n Asola Berrin (Eibar) eta ekainaren 7an Lasturren izango dira hitzorduak, arratsaldeko 5etan.

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **maiatzak 30 eta 31. ekainak 1, 9, 10, 11, 12.**

Burgoa Zuazo: **maiatzak 26, 27, 28, 29. ekainak 13, 14, 15.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: maiatzak 31

ekainak 7

BURGOA ZUAZO: maiatzak 24


ekainak 14 eta 21

9:30 - 13:30

ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



RPS: 183/12

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS  
Uzuri



**SUKIA**  
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**  
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

**OFICINAS Y EXPOSICION:**  
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

**ALMACÉN:**  
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




**ABEL**  
*Kristaldegia*

Mota guztietako kristalak  
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)  
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



**www.aukera-inmobiliaria.com**  
Aukerarik onena!

943 12 13 95




**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA



**LENTZERIA  
AZOKA  
MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



**kutxa** kutxabank



**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com



**haizea** estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazaatik



**ISABEL  
FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea - 20820 DEBA  
943 029 186

**AZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!



**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA



**Calbeton**  
JATETXEA

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**L.A.**  
**LARRAMENDI  
ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ekoðenda,  
dietetika,  
belarðenda

**sasoiiko**

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia - Osteopatia
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Podologia
- \* Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Affonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Institutuetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Okulsoian Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSAJUD, PADI...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com